ADMINISTRAZIOEN ARTEKO HITZARMENA, ZEINAREN BIDEZ FORMALIZATZEN BAITA “BARAKALDO ETA ERANDIO ARTEKO OINEZKOENTZAKO ETA BIZIKLETENTZAKO ZUBIA ERAIKITZEKO PROIEKTUA”, “ITSASADARREKO OINEZKOENTZAKO ETA BIZIKLETENTZAKO ARDATZA ERAIKITZEKO PROIEKTUA. TARTEA: ALTZAGA LAMIAKO” ETA “ITSASADARREKO OINEZKOENTZAKO ETA BIZIKLETENTZAKO ARDATZA ERAIKITZEKO PROIEKTUA. TARTEA: LUTXANA-ALTZAGA” OBREN PROIEKTUEN EREMUAREN BARRUKO DESJABETZE-ESPEDIENTEA IZAPIDETZEKO KUDEAKETA-GOMENDIOA, ERANDIOKO UDALARENA.

CONVENIO INTERADMINISTRATIVO A TRAVÉS DEL CUAL SE FORMALIZA LA ENCOMIENDA DE GESTIÓN PARA LA TRAMITACIÓN DEL EXPEDIENTE EXPROPIATORIO DENTRO DEL ÁMBITO DE LOS PROYECTOS DE LAS OBRAS “PROYECTO DE CONSTRUCCIÓN DEL PUENTE PEATONAL Y CICLABLE ENTRE BARAKALDO Y ERANDIO”, “PROYECTO DE CONSTRUCCIÓN DEL EJE PEATONAL Y CICLABLE DE LA RÍA. TRAMO: ALTZAGA LAMIAKO” Y “PROYECTO DE CONSTRUCCIÓN DEL EJE PEATONAL Y CICLABLE DE LA RÍA. TRAMO: LUTXANA-ALTZAGA”

.

Bilbon, 2022ko (e)(a)n.

En Bilbao, a de 2022

PARTE–HARTZAILEAK

ALDE BATETIK, IMANOL PRADALES GIL jauna, Bizkaiko Foru Aldundi txit goreneko Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Saileko foru diputatua.

BESTETIK, AITZIBER OLIBAN GUTIÉRREZ andre txit agurgarria, Erandioko Udaleko alkate-andrea (udalburua).

REUNIDOS

DE UNA PARTE, D. IMANOL PRADALES GIL, Diputado Foral del Departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial de la Excma. Diputación Foral de Bizkaia.

DE LA OTRA, la Ilma Sra. AITZIBER OLIBAN GUTIÉRREZ el cual comparece como Alcaldesa (Presidente) del Ayuntamiento de Erandio.

ESKU HARTZEN DUTE

Lehenengoak Bizkaiko Foru Aldundiko Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Foru Saileko diputatua gisa esku hartuko du, Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Sailaren egitura organikoaren erregelamendua onesten duen Bizkaiko Foru Aldundiaren abuztuaren 24ko 101/2022 Foru Dekretuaren azken xedapenetatik lehenengoan jasotako eskumen orokorraren arabera.

Bigarrenak Erandioko Udaleko alkate-andrea udalburu gisa esku hartuko du, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21. artikuluaren bitartez udala

INTERVIENEN

El primero en su calidad de Diputado Foral Titular del Departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial de la Diputación Foral de Bizkaia, y en representación de la misma, a tenor de la competencia general recogida en la Disposición Final primera del Decreto Foral de la Diputación Foral 101/2022, de 24 de agosto, por el que se aprueba el Reglamento de Estructura Orgánica del Departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial.

La segunda en su condición de Alcaldesa-(Presidente) del Ayuntamiento de Erandio, en el ejercicio de la capacidad legal de representación del Ayuntamiento que le confiere el artículo 21 de la

ordezkatzeko lege-gaitasuna izanik.

Parte-hartzaileek HITZARMEN hau sinatzeko legezko gaitasuna aitortzen diote elkarri.

Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases del Régimen Local representación legal del mismo.

Las partes intervinientes se reconocen capacidad legal suficiente para otorgar el presente CONVENIO, y a tal efecto

## AZALTZEN DUTE

I.- Agindu hori bat dator Euskadiko Tokiko Erakundeak arautzen dituen apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 19.4 artikuluak xedatutakoarekin eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 11. artikuluak ezarritakoarekin.

II.- Erandioko Udalari dagokio desjabetzeko eskumen ukaezina baliatzea, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 4,1.d) artikuluan eta Euskadiko Tokiko Erakundeak arautzen dituen apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 2.5 eta 17.1.9 artikuluetan xedatutakoaren arabera.

III. Bizkaiko Foru Aldundia hurrengo proiektuen idazketa amaitzen ari dela:

“Barakaldo eta Erandio arteko oinezkoentzako eta bizikletentzako zubia eraikitzeko proiektua”. Eraikuntza-proiektuaren helburu nagusia da Bizkaiko Bizikleta Bideen Lurralde Plan Sektorialeko L3 eta L4 lineak lotzen dituen bizikletentzako eta oinezkoentzako ibilbide bat egiteko beharrezkoak diren obrak definitzea, bai eta Barakaldo eta Erandio udalerriak lotzeko ere, Barakaldoko Galindo ibaiaren bokalaren eta, Itsasadarraren ondoan, Altzaga inguruan, Erandioko hirigunearen artean. Lotura hori Bilboko itsasadarraren gaineko zubi mugikor baten bidez egiten da, itsasontziei zirkulatzeko aukera ematen diena.

“Itsasadarreko oinezkoentzako eta bizikletentzako ardatza eraikitzeko proiektua. Tartea: Altzaga Lamiako”. Eraikuntza-proiektuaren helburu nagusia da bizikletentzako eta oinezkoentzako ibilbide bat egiteko beharrezkoak diren obrak definitzea. Horretarako, Itsasadarreko BI-711 errepidearen egungo plataforma erabat berrantolatzea planteatu da, Altzaga (Erandioko UM) eta Lamiako (Leioako UM) auzoen arteko 3 km inguruko tarte batean.

## EXPONEN

I.- Que la presente encomienda se convenia según lo establecido por el artículo 19.4 de la Ley 2/2016, de 7 de abril, que regula las instituciones locales de Euskadi, así como según lo regulado por el artículo 11 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, del Régimen Jurídico del Sector Público.

II.- Que resulta de la competencia del Ayuntamiento de Erandio el ejercicio irrenunciable de la potestad expropiatoria, tal y como viene regulada por el artículo 4.1 d) de la Ley 7/85, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local, así como por los artículos 2.5 y 17.1.9 de la Ley 2/2016, de 7 de abril, que regula las instituciones locales de Euskadi.

III.- Que la Diputacion Foral de Bizkaia esta ultimado la redacción de los proyectos:

“Proyecto de construcción del puente peatonal y ciclable entre Barakaldo y Erandio” cuyo objeto principal es la definición de las obras necesarias para la ejecución de un itinerario ciclista y peatonal que conecta las líneas L3 y L4 del Plan Territorial Sectorial de Vías Ciclistas de Bizkaia así como los municipios de Barakaldo y Erandio en el entorno de la desembocadura del Galindo en Barakaldo y del núcleo urbano de Erandio junto a la Ría, en la zona de Altzaga. Esta conexión se realiza mediante un puente móvil sobre la Ría de Bilbao que permita la circulación de barcos

Proyecto de Construcción del Eje Peatonal y Ciclable de la Ría. Tramo: Altzaga-Lamiako, cuyo objeto principal es la definición de las obras necesarias para la ejecución de un itinerario ciclista y peatonal, para lo cual se plantea una reordenación completa de la actual plataforma sobre la que se asienta la carretera de la Ría, BI-711, a lo largo de un tramo de unos 3 km entre los barrios de Altzaga (TM de Erandio) y Lamiako (TM de Leioa).

Itsasadarreko oinezkoentzako eta bizikletentzako ardatza eraikitzeko proiektua. Tartea: Lutxana-Altzaga". Eraikuntza-proiektuaren helburu nagusia da bizikletentzako eta oinezkoentzako ibilbide bat egiteko beharrezkoak diren obrak definitzea. Horretarako, Itsasadarreko BI-711 errepidearen egungo plataforma erabat berrantolatzea planteatu da, Lutxana (Bilboko UM) eta Altzaga (Erandioko UM) auzoen arteko 1,72 km inguruko tarte batean.

Proyecto de Construcción del Eje Peatonal y Ciclable de la Ría. Tramo: Lutxana-Altzaga", cuyo objeto principal es la definición de las obras necesarias para la ejecución de un itinerario ciclista y peatonal, para lo cual se plantea una reordenación completa de la actual plataforma sobre la que se asienta la carretera de la Ría, BI-711, a lo largo de un tramo de unos 1,72 km entre los barrios de Lutxana (TM Bilbao) y Altzaga (TM de Erandio).

IV. Aipaturiko proiektu horiek gauzatzeak, idatzita dauden moduan, berekin dakar desjabetze-espedientearen izapidetze zehatza, eta aipaturiko udalak ez du desjabetze-eskumena gauzatzeko behar diren baliabide tekniko eta juridikorik, eta horri ezin dio uko egin.

IV.- Que la ejecución de los citados proyectos, en los términos que está redactado conlleva aparejada la tramitación concreta de expediente expropiatorio para cuya ejecución, el citado ayuntamiento, no dispone de los medios técnicos y jurídicos necesarios para llevar a cabo su competencia expropiatoria, la cual le es irrenunciable.

V. Bizkaiko Foru Aldundiko Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Sailak, Desjabetzeen eta Ukituriko Zerbitzuen Zerbitzuaren bidez, eskumena eta baliabideak ditu Bizkaiko Lurralde Historikoko udalei aholkularitza emateko eta, aldez aurretik hitzarmena eginda, nahitaezko desjabetzearen espedienteak kudeatzeko, udalek ez dutenean egoki diren desjabetzeak egiteko baliabide tekniko eta juridikorik, hain zuzen ere lehen aipatutako 44 artikuluko d) letran aurreikusten den bezala. Azpiegituretarako eta Garapenerako Sailaren Egitura Organikoaren Erregelamendua onartzen du Foru Aldundiaren abuztuaren 24ko 101/2022 Foru Dekretu horrek.

V.- Que el Departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial de la Diputación Foral de Bizkaia, a través de su Servicio de Expropiaciones y Servicios Afectados, tiene competencia y medios para el asesoramiento a los ayuntamientos del Territorio Histórico de Bizkaia y gestión, previo convenio, de los expedientes de expropiación forzosa cuando los ayuntamientos carezcan de los medios técnicos y jurídicos para realizar las expropiaciones que le sean oportunas, tal y como lo prevé el artículo 44 apartado d) del anteriormente citado Decreto Foral de la Diputación Foral 101/2022, de 24 de agosto, por el que se aprueba el Reglamento de Estructura Orgánica del Departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial.

VI. Hitzarmen honen eremu materiala "Barakaldo eta Erandio arteko oinezkoentzako eta bizikletentzako zubia eraikitzeko proiektua", "Itsasadarreko oinezkoentzako eta bizikletentzako ardatza eraikitzeko proiektua. Tartea: Altzaga Lamiako" eta "Itsasadarreko oinezkoentzako eta bizikletentzako ardatza eraikitzeko proiektua. Tartea: Lutxana-Altzaga" obren proiektuen eremuaren desjabetze-kudeaketara mugatzen da soilik.

VI.- Que el ámbito material de este convenio se circunscribe exclusivamente a la gestión expropiatoria del ámbito Proyectos de las obras "Proyecto de construcción del puente peatonal y ciclable entre Barakaldo y Erandio", "Proyecto de Construcción del Eje Peatonal y Ciclable de la Ría. Tramo: Altzaga Lamiako" y "Proyecto de Construcción del Eje Peatonal y Ciclable de la Ría. Tramo: Lutxana- Altzaga"

VII. Horretarako, esku hartzen duten bi administrazioen interesak koordinatzeko, bakoitzak bere eskumenen ikuspegitik, lankidetza-irizpideei eta eraginkortasun eta ekonomia handienari jarraiki, parte hartzen duten alderdiek HITZARMEN hau formalizatuko dute, honako klausula hauen arabera:

VII.- A tal efecto, con el fin de coordinar los intereses de las dos administraciones intervinientes, desde el punto de vista de sus respectivas competencias, atendiendo a los criterios de cooperación y máxima eficacia y economía, las partes intervinientes proceden a formalizar el presente CONVENIO, con arreglo a las siguientes:

KLAUSULAK

CLÁUSULAS

## 1.- HITZARMENAREN XEDEA

Honako hitzarmen honen xedea da Bizkaiko Foru Aldundiko Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenenerako Sailaren eta Erandioko Udalaren artean formalizatzea “Barakaldo eta Erandio arteko oinezkoentzako eta bizikletentzako zubia eraikitzeko proiektua”, “Itsasadarreko oinezkoentzako eta bizikletentzako ardatza eraikitzeko proiektua. Tartea: Altzaga Lamiako” eta “Itsasadarreko oinezkoentzako eta bizikletentzako ardatza eraikitzeko proiektua. Tartea: Lutxana-Altzaga” obren proiektuen eremuaren barruan desjabetze-espedientea izapidetzeko kudeaketa-gomendioa.

Desjabetze-espedientearen kudeaketa tekniko eta materiala egiteko, Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Sailaren desjabetzeen eta ukitutako zerbitzuen zerbitzua Erandioko Udalarekin elkarlanean arituko dira, desjabetzearen kudeaketa zuzen garatuko dela ziurtatzeko.

## 1.- OBJETO DEL CONVENIO

Es objeto del presente Convenio la formalización entre el Departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial de la Diputación Foral de Bizkaia y el Ayuntamiento de Erandio de la encomienda de gestión para la tramitación del expediente expropiatorio dentro del ámbito de los Proyecto de las obras “Proyecto de construcción del puente peatonal y ciclable entre Barakaldo y Erandio”, “Proyecto de Construcción del Eje Peatonal y Ciclable de la Ría. Tramo: Altzaga Lamiako” y “Proyecto de Construcción del Eje Peatonal y Ciclable de la Ría. Tramo: Lutxana- Altzaga”

La mera gestión técnica o material del expediente expropiatorio por parte del Servicio de Expropiaciones y Servicios Afectados del Departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial supondrá la estrecha colaboración con el Ayuntamiento de Erandio, para garantizar la correcta marcha de la gestión expropiatoria.

## 2.- ALDERDIEN KONPROMISOAK

### Bizkaiko Foru Aldundia

Hitzarmen honetan ezarritakoaren ondorioetarako, Bizkaiko Foru Aldundiko Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenenerako Sailari dagozkio hauek:

1- Erandioko Udalaren eskura jartzea behar dituen langile publikoak, aipaturiko proiektuen eremuan kokaturiko lurzoruen desjabetze-espedientearen izapidetze teknikoa eta materiala euskarritzeko. Izapidetzearen kudeaketarako gomendio horrek ez du ekarriko, ordea, Bizkaiko Foru Aldundiko Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Sailak jabetza kentzeko eskumena eskuratzea, zeren eta Erandioko Udalak ezin baitio horri uko egin.

## 2.- COMPROMISOS DE LAS PARTES

### Diputación Foral de Bizkaia

A los efectos establecidos en el presente convenio, corresponde al Departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial de la Diputación Foral de Bizkaia:

1- Poner a disposición del Ayuntamiento de Erandio el necesario personal público a los efectos de dar soporte a la mera tramitación técnica o material del expediente expropiatorio de los suelos ubicados en el ámbito de los citados proyectos, sin que esta encomienda de gestión para la mera tramitación suponga que el Departamento de Desarrollo Infraestructuras y Desarrollo Territorial de la Diputación Foral de Bizkaia asuma la competencia sustantiva expropiatoria, por ser ésta irrenunciable para el Ayuntamiento de Erandio.

Erandioko Udala

1.- Proiektuen eremuko desjabetzea kudeatzeko helburuarekin, Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Saileko langile publikoei udaleko bulegoetan sartzen uztea, bai eta aipatutako desjabetzearen kudeaketa zehatzerako dokumentazioa kontsultatzea ahalbidetzea ere.

2.- Proiektuen eremuko desjabetzea kudeatzeko helburuarekin, Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Saileko langile publikoei informazioa ematea, hitzarmen honen bitartez desjabetuko diren lur-zatien titulartasun-datuei buruzkoa.

3.- Proiektuen eremuko desjabetzearen kudeaketa egiteko soilik, Erandioko Udalaren erantzukizuna izango da beharrezkoak diren sektore guztietako baimenak izatea, desjabetze-prozedura behar bezala gauzatzen dela bermatzeko eta prozedura ez dadila luzatu oinarrizko baldintzak betetzen ez direlako.

4.- Proiektuen eremuko desjabetzea kudeatzeko soilik Erandioko Udalak izango du desjabetze-administrazio gisa dagozkion egintza administratibo guztiak emateko eskumena, besteak beste proiektuen onura publikoaren aldez aurreko adierazpena egitea. Adierazpen hori egun berean onetsi zen aipaturiko proiektuaren barruan.

3.- ALDERDIEN KONPROMISOAK

Lur-zatiak desjabetzearen ondoriozko betebehar ekonomiko guztiak Erandioko Udalaren erantzukizuna izango dira, eta Bizkaiko Foru Aldundiko Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenenerako Sailak ez du inolako betebehar ekonomikorik bere gain hartuko.

4. ALDERDIEK BEREN GAIN HARTUTAKO BETEBEHAR ETA KONPROMISOAK EZ BETETZEAREN ONDORIOAK

Aurreko puntuetan ezarritako betebeharrak ez betetzeak hitzarmenaren suntsiarazpena ekarriko du, seigarren klausulan aurreikusitako ondorioekin ekarri ere. Horrez gain, bidezkoak diren erantzukizunak eskatu ahal izango dira.

Ayuntamiento de Erandio

1.- A los meros efectos de la gestión expropiatoria del ámbito de los proyectos, facilitar al personal público del Departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial el acceso a las oficinas municipales, así como la consulta de la documentación necesaria para la concreta gestión expropiatoria.

2.- A los meros efectos de la gestión expropiatoria del ámbito de los proyectos, facilitar al personal público del Departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial toda la información relativa a los datos de titularidad de las parcelas que van a ser objeto de la expropiación prevista en el presente convenio

3.- A los meros efectos de la gestión expropiatoria del ámbito de los proyectos, será responsabilidad del Ayuntamiento de Erandio el disponer de todas las autorizaciones sectoriales precisas, para garantizar la correcta marcha del expediente expropiatorio y que tal procedimiento no se dilate por la falta del cumplimiento de requisitos esenciales.

4.- A los meros efectos de la gestión expropiatoria del ámbito de los proyectos, será competencia exclusiva del Ayuntamiento de Erandio la potestad para dictar todos los actos administrativos propios como administración expropiante, entre los que se encuentra la previa declaración de utilidad pública de los proyectos

3.- COMPROMISOS ECONÓMICOS DE LAS PARTES

Que todas las obligaciones económicas derivadas de la expropiación de las parcelas serán responsabilidad del Ayuntamiento de Erandio, no suponiendo la presente encomienda asunción de obligación económica alguna por parte del Departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial de la Diputación Foral de Bizkaia

4.- CONSECUENCIAS POR INCUMPLIMIENTOS DE LAS OBLIGACIONES Y COMPROMISOS ASUMIDAS POR LAS PARTES

El incumplimiento de las obligaciones establecidas en los apartados precedentes dará lugar a la resolución del presente Convenio con los efectos previstos en su cláusula sexta, sin perjuicio, en todo caso, de la exigencia de las responsabilidades a que hubiera lugar.

## 5.- HITZARMENA ALDATZEKO ARAUBIDEA

Sinatzaileen ahobatezko erabakia beharko da hitzarmena aldatzeko eta horretarako ezarritako izapide berak jarraituko dira.

## 6. HITZARMENENAK AZKENTZEA

Hitzarmen honen ondorioak hitzarmena betetakoan amaituko dira, hots, hitzarmen honen proiektuen eremuko lurzoruak desjabetzeko espedientearen izapidetze administratiboa bukatutakoan, edo honako arrazoi hauengatik:

- Alderdi sinatzaileek hitzarmena azkentzeko ahobatezko erabakia hartzeagatik.
- Alderdi sinatzaileetakoren batek bere gain hartutako betebeharrak eta konpromisoak ez betetzeagatik.
- Deuseztasuna adierazteko epaileen erabakia emateagatik.
- Hitzarmen honetan edo legeetan aurreikusitako beste edozein arrazoirengatik.

## 7.- ALDERDIEN LAGUNTZEKO BETEBEHARRA

Erandioko Udalak konpromisoa hartzen du Bizkaiko Foru Aldundiari laguntzeko hitzarmen honetako objektua behar den moduan egikaritzeko. Horretarako Aldundiak egin litzakeen kontrol-eginkizunetan parte hartuko du.

## 8.- HITZARMENAREN PUBLIZITATEA

Hitzarmen honen edukia Estatuko, Euskal Autonomia Erkidegoko edo Bizkaiko aldizkari ofizialetan argitaratuko da, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 11.3.b artikuluan xedatutakoaren arabera.

## 5.-RÉGIMEN DE MODIFICACIÓN DEL CONVENIO

La modificación del convenio requerirá acuerdo unánime de las partes firmantes y se seguirán los mismos trámites establecidos para su adopción.

## 6.- EXTINCIÓN DEL CONVENIO

Los efectos del presente convenio finalizaran por el cumplimiento del mismo, una vez concluida la tramitación administrativa del expediente expropiatorio de los suelos ubicados en el ámbito de los proyectos objeto de este convenio, o por las siguientes causas de resolución:

- El acuerdo unánime de todos los firmantes.
- El incumplimiento de las obligaciones y compromisos asumidos por parte de alguno de los firmantes.
- Por decisión judicial declaratoria de nulidad.
- Por cualquier otra causa prevista en el presente convenio o las leyes.

## 7.- OBLIGACIÓN DE COLABORACIÓN DE LAS PARTES

El Ayuntamiento de Erandio se compromete a colaborar en las funciones de control necesarias para la correcta ejecución del objeto del presente convenio que a tales efectos pudiera llevar a cabo la Diputación Foral de Bizkaia.

## 8.- PUBLICIDAD DEL CONVENIO

El contenido del presente convenio será objeto de publicación en los boletines oficiales del estado, de la comunidad autónoma del país vasco, o en el del territorio histórico de Bizkaia, según lo dispuesto en el artículo 11.3.b de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, del Régimen Jurídico del Sector Público

9.-DATU PERTSONALEN BABESA

Alderdi sinatzaileek honako hauetan ezarritakoa betetzea hitzartzen dute: pertsona fisikoen babesari buruzko eta datu pertsonalak tratatzearen eta datu horien zirkulazio librearen alorreko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 679/2016 Erregelamendua, 2016ko apirilaren 27koa; eta 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa eta aplikagarria den gainontzeko araudia.

10.- GARDENTASUNA

Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak Hitzarmen hau onetsi ondoren, Bizkaiko gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauaren 3.3 artikuluarekin bat 9.1.e). artikuluan ezarritakoaren arabera, BFAren Gardentasunaren Atarian argitaratuko da.

11.- EMAKUME ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNA

Hitzarmen honetan esku hartzen duten alderdiek genero ikuspegia txertatuko dute hitzarmen honen harira dagozkien jarduketa guztietan, emakume eta gizonen arteko berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauan ezarritakoari jarraikiz betiere.

12.- ARAUBIDE JURIDIKOA

Hitzarmen honi, bai eta izenpetu eta gero izango dituen ondorioei ere, araubide hau aplikatu beharko zaie, edo, hala badagokio, aurrerago egindako berariazko indargabetzeagatik aurrekoa ordeztuko duena:

- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Arlo Publikoaren Araubide Juridikoarena.
- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena.
- Nahitaezko Desjabetzeei buruzko 1954ko abenduaren 16ko Legea.
- Apirilaren 7ko 2/2/2016 Legea, Euskadiko tokiko erakundeak arautzen dituena.

9.- PROTECCIÓN DE DATOS DE CARÁCTER PERSONAL

Las partes firmantes se comprometen a cumplir con lo dispuesto en el Reglamento 2016/679, del Parlamento Europeo y del Consejo, de 27 de abril de 2016, relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos, y en la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y Garantía de los Derechos Digitales y demás normativa que resulte de aplicación.

10.- TRANSPARENCIA

Una vez aprobado el presente convenio por el Consejo de Gobierno de Diputación Foral de Bizkaia, conforme con lo dispuesto en el artículo 9.1.e) en relación con el artículo 3.3 de la Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, de Transparencia de Bizkaia, la Diputación Foral de Bizkaia el mismo será publicado en el Portal de Transparencia de DFB.

11- IGUALDAD MUJERES Y HOMBRES

Las partes intervinientes incluirán la perspectiva de género en todas las actuaciones que les corresponda realizar en relación con el presente convenio, conforme a lo establecido en la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres y en la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

12.- RÉGIMEN JURÍDICO

Al presente convenio, así como a los efectos que se derivan del mismo tras su firma, le resulta de aplicación la siguiente normativa, o en su caso la que sustituya a la misma por derogación expresa posterior:

- Ley 40/2015, de 1 de octubre, del Régimen Jurídico del Sector Público.
- Ley 7/1985, de 2 abril de abril, reguladora de las bases del régimen local.
- Ley de 16 de diciembre de 1954 sobre expropiación forzosa.
- Ley 2/2/2016, de 7 de abril, que regula las instituciones locales de Euskadi.

- 2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa.
- 105/2008 Dekretua, ekainaren 3koa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea garatzen duten premiazko neurriei buruzkoa.
- Bizkaiko Foru Aldundiaren 169/2014 Foru Dekretua, abenduaren 16koa. Horren bidez, Bizkaiko Lurralde Historikoko Aurrekontuei buruzko Araudi Orokorra onetsi zen, Aurrekontuei buruzko Foru Arauaren testu bategina garatzen duena.
- Eta aplikatu beharreko gainerako administrazio-araudia.

- Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo.
- Decreto 105/2008, de 3 de junio, de medidas urgentes en desarrollo de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo.
- Decreto Foral Normativo 169/2014, de 16 de diciembre por el que se aprueba el Reglamento General Presupuestario del Territorio Histórico de Bizkaia, de desarrollo del Texto Refundido de la Norma Foral General Presupuestaria.
- Y, restante normativa administrativa que resultase de aplicación.

## 13.- INDARREAN SARTZEA

Hitzarmena sinatutakoan sartuko da indarrean; nolanahi ere, hirugarrenengan izan ditzakeen ondorioek hitzarmenaren zortzigarren klausulan ezarritakoari jarraituko diote.

## 13.- ENTRADA EN VIGOR

La entrada en vigor será desde la firma del presente convenio, sin perjuicio de que los posibles efectos frente a terceras personas se producirán según lo previsto en la cláusula octava del presente convenio.

Eta aurreko guztia onartu eta berarekin ados direla adierazteko, esku-hartzaileek hitzarmen honen bi ale sinatzen dituzte, hasieran adierazitako lekuan eta datan.

Y en prueba de conformidad y aceptación de cuanto antecede, los intervinientes firman el presente documento por duplicado ejemplar en el lugar y fecha expresados en su encabezamiento.

ERANDIOKO ALKATE-UDALBURU ANDREA

LA ALCALDESA-PRESIDENTE DEL AYUNTAMIENTO DE ERANDIO

Sin./Fdo.: Aitziber Oliban Gutiérrez

AZPIEGITURETARAKO ETA LURRALDE GARAPENERAKO SAILEKO FORU DIPUTATUA /

DIPUTADO FORAL DEL DEPARTAMENTO DE INFRAESTRUCTURAS Y DESARROLLO TERRITORIAL

Sin./Fdo.: Imanol Pradales Gil